## ZUbik hautatutako proiektuari emango dion laguntza

**Baliabide ekonomikoak**

Ekoizpenerako laguntzaren aurrerapena: emango den diru kopurua proposamenaren arabera aztertuko da. Kopuru honek, ekoizpenerako laguntza eta emanaldien ordainsariak bilduko ditu.

Deialdi honen onuradun izateak ez dakar bestelako diru laguntzetara aurkeztearekin bateraezintasunik.

**Sorkuntzarako errezidentziak**

- Guttienez bi asteko egonaldiak izan beharko dira, eta moldatu beharko da areto bakoitzaren egutegiaren arabera.
- Laguntza artistikoa: aholkularitza izan ditaike.
- Harri-Xurin, Baxe Nafarroan, Elorrion, Zornotzan, Durangon, Leioan izango dira errezidentziak.

**Emanaldiak**

- Proiektuan parte hartzen duten sei antzokietan eta Aulesti jaialdian.

**Hautaketa**

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Desmartxa artistikoaren berritasuna eta zorroztasuna
- Testua euskaraz izatea (testurik balego)
- Proiektua abiatu berria izatea
- Fitxa teknikoaren bideragarritasuna, birei dagokienez
- Sorkuntzaren mediazioa publiko desberdinentzat, eskoletakoak barne

**ZUbi** proiektuko kideek hautaketa-batzordea osatuko dute.
Deialdia hutsik gera daiteke

ZUbi

## Egutegia

- Proiektuaren aurkezpena: 2012ko irail. 14a arte
- Emaitza bi hilabeteren buruan emango da jakitera
- Bi hilabetetako epe horretan, eta beharrezko ikusten den kasuetan, bilerak egingo dira artista zein konpainiekin proiektuak ahalik eta ondoen ezagutzeko
- Egonaldiak: 2013-an
- Estrenaldia: 2013-ko udazkenean

## Eskaerak egiteko jarraibideak

**1/ Mezu elektroniko baten bidez** honako dokumentu hauek bidaltzea:

- Hautagaitza-formularioa euskaraz.

(Formularioa ZU-BI proiektuko kideen webguneetan lor daiteke).

- Halaber, hautaketarako lagungarria izan daitekeen edozein elementu osagarri bidali behar dute (konpainiaren lanari eta aurkeztutako proiektuari buruzko informazioa gehitzeko irudiak edo idazkiak).

**Oharra: Hautagaien mezu elektronikoek ez dute 3 MB-ko tamaina gaindituko.**

Hautagaitza-dokumentazioa ondo jaso dela ziurtatzeko, telefonoz deitzea gomendatzen dugu.

**Proiektuetarako deialdirako kontaktuak :**


**Artedrama Arte Eszenikoen Plataforma**
Jose Ramon Aketxe Plaza 11
E-48940 Leioa
Tel.: +34 615 779 511 / 633 567 646
info@artedrama.com

*edota*

**Harri Xuri – SIVOM Artzamendi**
Kultur aretoa
F-64250 Luhuso
Tel.: +33 (0) 5 59 55 58 43
harrixuri@yahoo.fr
http://harrixuri.blogspot.fr/


# EUSKAL ANTZERKIAREN SORKUNTZA BERRIARI LAGUNTZEN

*Euskal Herriko zazpi kide euskal antzerkia bultzatzeko.*

ZUbi

## 2011a geroz Euskal Herriko 7 kideek Iparralde zein Hegoaldekoak, gogoeta sakon bat eraman dute euskal antzerkiaz.

Euskal antzerki-sorkuntza profesionalaren egoerari buruzko ikuspegi komuna partekatzen dute:

- ♦Parte-hartze eskasa, Ipar zein Hego Euskal Herriko hedatze-egituren aldetik, koprodukzioetan eta sorkuntzarako egoitza-egonaldietan. HARRI XURI sorkuntza-tailer bakarra da, euskal antzerkirako, zazpi euskal herrialdeen artean.
- ♦Beren lanen kostua emankizun gutxirekin estali nahi dute konpainiek; ondorioz, hedatze-kostua oso altua da eta zaila suertatzen da programazioetan sartzea.
- ♦Talde artistikoak egonkortzeko asmoz, konpainiek lan berria sortzen dute urtero; honela, oso zaila da inbertsio materialak zein immaterialak errentagarri bihurtzea.
- ♦Bere balio artistikoagatik baino, sustapen-laguntzak jasotzearren itzultzen da lana euskarara, gazteleraz edo frantseseraz dagoena normalean.

Hori ikusi eta, **ZUbi** proiektuko kideek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- ⇒ Euskal antzerki-ikuskizunak hedatzeko eta sustatzeko aukerak gehitzea, sorkuntza-fase guztietan, proiektuaren sorretatik hasita proiektua hedatzeko fasera arte.
- ⇒ Lan berri bat sortzea, euskara hutsez.
- ⇒ Hedatze-epea mugatzea denbora aldetik, programazioari eskaini osotasunean, honela kostua gutxituz ordainsariei dagokienean eta, ondorioz, salneurri egokia lortuz, emankizun-kopurua handitzeko aukera izateko.

Aipatu irizpidetan oinarrituta, **ZUbi** proiektuko bazkideek euskal antzerkiaren sormenari laguntzea helburu duen parte-hartze proiektua martxan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

**Proiektuko 1. deialdi honen esparruan, ZUbi proiektuak euskal antzerkiko sorkuntza batentzat artista edo konpainia bati laguntza emango dio.**

Laguntza hainbat modutan gauzatuko da, hala nola sorkuntzarako tokiak lagata, proiektuaren premietara egokitutako laguntza emanda (artistikoa, teknikoa eta/edo kudeaketakoa), sortzeko diru-laguntzak emanda eta hedapena zazpi guneetan segurtatuz.

**Ekimenean parte hartuko duten ZUbi proiektuko kideak :**
**Lapurdi:**
Harri Xuri- Karrikako arteen fabrika (Luhuso)
**Baxe Nafarroa :**
Baxe Nafarroako Herri Antzokia (Donazaharre)
**Bizkaia:**
San Agustin Kultur Gunea (Durango)
Kultur Leioa (Leioa)
Ametx Zornotza Aretoa (Zornotza)
Arriola aretoa (Elorrio)
Artedrama Euskal laboratégia (Aulesti)

ZUbi

## Baldintzak:

- ⁎ Antzerkirako testu bat izan behar da.
- ⁎ Sorkuntza originala euskaraz izan behar da.
- ⁎ Bakarka zein taldean sortutako lana izan daiteke.
- ⁎ Edozoin lekuan aurkeztua izaten ahal da, bainan derrigorrez barruko aretoetan ematea posible izan behar da.
- ⁎ Formatua: txikia edota ertaina.
- ⁎ Legalidade administratiboa bete behar dute artista zein konpainiek; fakturatzeko aukera izan behar dute.

## Aurreproiektuaren gutxieneko edukiak:

- ⁎ Ideia.
- ⁎ Testua (zirriborroak ere balioko luke).
- ⁎ Formatuaren azalpena, fitxa artistikoa eta fitxa teknikoa, behin behinekoak ere balio du.
- ⁎ Aurrekontua: behin behinekoak ere balio du.
- ⁎ Egutegia